

EAJK 25 PROPOSAMEN AURKEZTU DITU 2020KO AURREKONTU PROIEKTUA HOBETZEKO ASMOZ ETA HORIETATIK 5 ONARTU DITU UDAL GOBERNUAK

- **Jeltzaleek 510.000 euroko kopurua osatzen zuten proposamenak egin zituzten hasiera batean eta udal gobernuarekin adostasunetara hertzeko asmoz 129.000 euroa doitu zuten hasierako proposamen hura, azkenean 62.000 euroko kopurua baino onartu ez badu ere udal gobernuak.**
- **Proposamenak egiteaz gain, jeltzaleek azpimarra jarri nahi izan dute bai 2019rako eta bai 2020rako herritarrek aurrekontu parte-hartzaileen prozesuaren baitan egindako ekarpenetan eta aurten bete ez direnak eta hurrengo urterako aurreikusiak zeudenak, guztiak, aurrekontuan jasotzea eta betetzea eskatu dute.**

Oñatiko EAJk 25 proposamen aurkeztu zituen abenduaren 5ean, udal gobernuaren 2020ko udal aurrekontu proiektua hobetzeko asmoz, proposamen horiek guztira 510.000 euroko kopurua osatzen zuten. Gerotzik, udal gobernuarekin elkarrizketak izan dituzte jeltzaleek aurrekontuak adosteko asmoz eta Udalaren zorpetze maila dela eta, aurten inbertsioetarako 1,8 milioi baino ez daudela ikusirik, hasierako proposamen hori 129.000 eurotara doitu zuten adostasun batera hertzeko bidean pauso garrantzitsua emanez. EAJren proposamenak askotarikoak eta alor desberdinak izan dira.

Kirola, hirigintza eta zerbitzuak, landa auzoak eta ingurumena

Kirolen arloan, Azkoagain futbol zelaiko instalazioak izan dituzte lehentasun, izan ere, Azkoagainen egoerari oso larria iritzi diote eta beharrezkoak ikusten dituzte segurtasuna bermatzeko. Hirigintza eta zerbitzuei dagokienez, 3 izan dira EAJk ezarri dituen lehentasunak, Olakua-Olapoto auzoko iragarritasuna hobetzeko obrak, Bizikidetza Ordenantza eta Arantzazuko komunak konpontzea. Landa auzoetarako ere egin dituzte hainbat ekarpen, esaterako, Nekazaritza eta abeltzaintza sektorearen egoeraren diagnostikoa, edota landa auzoetako argiteria hobetzeko plan orokorra egitea eta lehen eremu bat argiztatzea. Ingurumenean, aldaketa klimatikoari aurre egiteko plana egitea ere beharrezko ikusten du EAJk, bakoitzaren txikitasunetik asko egin daitekeelako mundu mailako arazoa den honi aurre egiteko eta ekintza horiek eraginkorrik izateko planifikazioa eta konpromisoa beharrezkoak dira jeltzaleen ustez.

Kultura, euskara, gaztedia eta berdintasuna

Kultura arloan, 2020ean aurreikusita dituzten ekintzak aurrera eraman ahal izateko, udal bandaren urteko dirulaguntza 2.000 euro igotzea proposatu dute jeltzaleek eta baita herriko kultur elkarteen eskaera den kultur ekintzak iragartzeko eta oñatiar guztiei informazioa helarazteko LED pantaila jartzea ere. Euskara alorrean EAJk lehentasunezkoia ikusten du Ostalaritzta eta Zaintza zerbitzuetan euskararen erabilera sustatzeko ekimenak aurrera eramatea eta horretarako ere eskatu du diru partida. Bestalde, kultur-etxeen azterketa garaian asteburueta ikasgelak zabalik egoteko partida bat ere eskatu dute, Oñatiko gazteek ikasketetan burubarri daudenean aukera hori izan dezaten. Berdintasunari dagokionez, jeltzaleek berriz ere emakumeen segurtasunean jarri dute fokua, puntu kritikoak ezabatzea, argiztapena...

Gizarte politikak eta sozioekonomia

Aurreko legealdian behin eta berriz egin zuten bezala, jeltzaleek berriz eskatu duten beste proposamen bat Oñatik “Euskadi Lagunkoia” programarekin bat egitearena da. Aipatu programak helburu ditu, zahartzeko aktiboa eta parte-hartze mugimenduak eta zeharkako politikak sustatzea, adin guztietako pertsonentzako Oñati lagunkoi bat egiteko. Herri-mailan, adinka, kontsumoen eta adikzioen diagnostikoa eta Nerabeen Adikzioak Prebenitzeko Plana egiteko partida ere eskatu du EAJk. Sozioekonomiaren atalari dagokionez, EAJk Oñatiko merkataritzak dituen zaitasunetan ezarri ditu bere lehentasunak, begi-bistakoak baitira sektoreka dituen zaitasunak, baita honek dakartzan kaleetako bizitzaren eta lanpostuen galera ere. Horregatik, EAJ-PNVk

herrian merkataritza sustatzeko partida ere proposatu du, lau ardatzen baitan egituratu du atal honetarako bere proposamena, Merkatariantzako Trebakuntza Programa Integrala, kontzientziazo kanpainak, turismoaren sustapena eta alde zaharreko lokal hutsei erabilera berriak ematera bideratutako dirulaguntzak.

Herritarrekin hartutako konpromisoak betetzea

Dagoeneko publikoki azaldu duten bezala, larria iruditzen zaie jeltzaleei herritarrekin parte-hartze prozesu baten bidez erabakitako partidak ez betetzea. Aurten egitekoak zirenetatik gutxi batzuk jarri dira martxan eta gutxi horien betetze maila oso baxua da. Horregatik eskatu dute jeltzaleek 2019an bete ez direnak eta 2020rako aurreikusita zeudenak, guztiak, 2020an egitea eta lehentasuna ematea.

Gauzak horrela eta udal gobernuarekin adostasunetara iristeko egindako esfortzuaren ondoren, EAJren proposamenetatik 5 onartzea erabaki du gobernu taldeak, guztira 62.000 euro. Azkoagaineko futbol zelaiko instalazioetan obrak egiteko 20.000 euro (42.000 euro eskatzen dituzte jeltzaleek), Arantzazuko komunak konpontzeko proiektua 20.000 euro (50.000 euroko partida eskatu du EAJk, proiektua egitetik harago, obrak ere egiteko), nekazaritzaren eta abeltzaintzaren diagnostikoa 6.000 euro, landa auzoetako argiteria hobetzeko plan orokorra egitea eta lehen eremu bat argiztatzea 20.000 euro eta Ostalaritza eta Zaintza zerbitzuetan euskararen erabilera sustatzeko ekimena aurrera eramateko 6.000 euro.

Proposamen batzuk partidarik gabe lantzen hasteko aukera dagoenez, horiek 2020an zehar mahai gainean jarri eta jarraipena egiteko asmoa azaldu du EAJk, esaterako, Euskadi Lagunkoia ekimenarekin bat egitea. Bestalde, herri-mailan, adinka, kontsumoen eta adikzioen diagnostikoa eta Nerabeen Adikzioak Prebenitzeko Plana egiteko EAJk eskatutako 15.000 euroko partida, Prebentzio ekintzak partidatik egiteko asmoa azaldu du udal gobernuak. Baina jeltzaleek lehentasunezkoak ikusten dituzten proposamen ugari geratu dira aurrekontu proietutik kanpo eta osoko bilkuraren horiek defendatzeko asmoa. Onartu gabeko artean azpimarratu nahi izan dituzte, Azkoagaineko futbol zelako instalazioak konpontzeko 42.000 euroko partida, gobernu taldeak 20.000 eurotan uztea proposatu arren, jeltzaleek ez dute nahikoa denik uste. Bizikidetza ordenantza eta aldaketa klimatikoari aurre egiteko plan egiteko baliabideak jartzea ere lehentasunezkotzat dute jeltzaleek, baita Musika Bandari beharrezkoak dituen baliabideak ematea eta kultur programa iragartzeko pantaila jartzea.

“Proposamenak egiterakoan eta baita udal gobernuarekin izan ditugun elkarriketetan, helburu izan dugu herritarren beharrei ahalik eta egokien erantzutea” azaldu du Ainhoa Galdos bozeramaile jeltzaleak. “Herri ordezkarriak garen aldetik hori da gure betebeharra eta horretan lanean jarraitzeko konpromisoa dugu, oñatiarrekin eta oñatiarrentzat lan egiteko konpromisoa” amaitu du Galdosek.

EAJ-PNV HA PRESENTADO 25 PROPUESTAS PARA MEJORAR EL PRESUPUESTO DE 2020 Y EL GOBIERNO MUNICIPAL HA ACEPTADO 5 DE ELLAS.

- **EAJ-PNV de Oñati presentó una propuesta inicial por un importe total de 510.000 euros, propuesta que ajustó a una cantidad de 129.000 euros en aras a llegar a un acuerdo con el equipo de gobierno, que finalmente ha aprobado 5 propuestas por un importe de 62.000 euros.**
- **Los jeltzales han subrayado, además, la importancia del compromiso adquirido con la ciudadanía en el proceso participativo para incorporar propuestas ciudadanas a los presupuestos de 2019 y 2020 y han solicitado que se cumplan en 2020 tanto las previstas para ese año como las que no se han ejecutado en 2019.**

EAJ-PNV de Oñati presentó el 5 de diciembre 25 propuestas que sumaban un importe total de 510.000 euros con el objeto de introducir mejoras en el proyecto de presupuestos de 2020 del equipo de gobierno. Tras la presentación de las propuestas, los jeltzales han mantenido conversaciones con el gobierno municipal para poder acordar los presupuestos y viendo que, debido a la situación de endeudamiento del ayuntamiento se disponen únicamente 1,8 millones para inversiones reales, ajustaron su propuesta inicial a una cantidad de 129.000 euros, dando un paso importante para poder alcanzar un acuerdo. Las propuestas de EAJ-PNV son diversas y de diferentes ámbitos.

Deporte, urbanismo y servicios, zona rural y medioambiente

En el ámbito del deporte la principal prioridad de EAJ-PNV han sido las instalaciones del campo de fútbol de Azkoagain, ya que su estado es pésimo y es necesario realizar obras para garantizar su seguridad. En urbanismo y servicios los jeltzales han priorizado 3 intervenciones, las obras para mejorar la accesibilidad en Olakua-Olapoto, la Ordenanza de Convivencia y los baños de Arantzazu. En cuanto a la zona rural, EAJ-PNV ha solicitado un diagnóstico de la situación del primer sector, así como la realización de un plan de alumbrado en la zona rural que incorpore, asimismo, la realización del alumbrado de una primera fase. El plan para hacer frente al cambio climático ha sido la propuesta jeltzale en el ámbito del medioambiente, ya que estiman necesario realizar dicho plan para llevar a cabo iniciativas de manera eficiente para poder trabajar desde lo local ante este problema global.

Cultura, euskera, juventud e igualdad

Son dos las partidas sobre las que EAJ-PNV ha realizado propuestas en el ámbito de la cultura, por un lado, subir la subvención a la Banda Municipal en 2.000 euros para que puedan llevar a cabo las actividades que tienen previstas para el 2020 y, por otro, la colocación de una pantalla LED en el municipio para informar de las actividades culturales a la ciudadanía, dando respuesta a una petición de diversos agentes culturales. Los jeltzales, asimismo, han solicitado una partida para promover el uso del euskera en la hostelería y en el cuidado a las personas. Otra de las partidas solicitadas por EAJ-PNV iría destinada a la apertura de la sala de estudio de la casa de cultura los fines de semana en época de exámenes, para dar la oportunidad a las y los estudiantes de usarla cuando están inmersos en sus estudios. En cuanto a la igualdad, los jeltzales vuelven a poner el foco en la seguridad de las mujeres, con medidas destinadas a eliminar puntos críticos, a mejora la iluminación, etc.

Políticas sociales y socioeconomía

Como ya hicieran insistentemente en la anterior legislatura, los jeltzales han vuelto a pedir que Oñati se incorpore al proyecto “Euskadi Lagunkoia”, cuyo objetivo es promover el envejecimiento activo, crear movimientos participativos y políticas transversales para hacer de Oñati un municipio amable para las personas de todas las edades. EAJ-PNV ha propuesto otra partida para realizar un diagnóstico por edades del consumo y las adicciones y un Plan para la Prevención de las Adicciones en Adolescentes. En cuanto al ámbito

socioeconómico, los jeltzales vuelven a insistir en el apoyo al pequeño comercio, una prioridad viendo las dificultades que atraviesa el sector y una necesidad para mantener la vida de nuestras calles, así como puestos de trabajo. En ese sentido, EAJ-PNV ha solicitado partidas para realizar un Programa Integral de Formación para Comerciantes, campañas de concienciación, fomento del turismo o subvenciones para dar nuevos usos a locales vacíos del casco histórico.

Cumplir lo prometido a la ciudadanía

Como ya han manifestado públicamente, los jeltzales creen que es muy grave el incumplimiento de las partidas propuesta por la ciudadanía a través de un proceso participativo. De las incorporadas al presupuesto de 2019 se han puesto en marcha unas pocas y su nivel de ejecución ha sido muy bajo. Por ello han solicitado que se realicen en 2020 tanto las incorporadas al presupuesto de 2019 que no se han ejecutado como las previstas para el 2020, dándoles prioridad y ejecutando todas ellas.

Así las cosas y tras el esfuerzo realizado para acordar los presupuestos con el equipo de gobierno, el gobierno municipal ha aceptado incorporar 5 de las partidas propuestas por los jeltzales, con modificaciones por un importe de 62.000 euros. 20.000 euros para las obras de Azkoagain (los jeltzales han solicitado una partida de 42.000 euros), 20.000 euros para realizar el proyecto de reparación de los baños de Arantzazu (los jeltzales solicitan 50.000, para realizar las obras además del proyecto), 6.000 euros para el diagnóstico del primer sector, 20.000 euros para el alumbrado en la zona rural y 6.000 euros para fomentar el euskera en la hostelería y el cuidado a las personas.

Como existe la posibilidad de empezar a trabajar en 2020 algunas de las propuestas como Euskadi Lagunkoia sin partida presupuestaria, EAJ-PNV ha mostrado su intención de ponerlas sobre la mesa y realizar un seguimiento de las mismas. Por otro lado, el equipo de gobierno ha manifestado su intención de incorporar la partida de 15.000 euros propuesta por los jeltzales para realizar un diagnóstico por edades del consumo y las adicciones y un Plan para la Prevención de las Adicciones en Adolescentes a la partida de Acciones de Prevención. Aún así, muchas propuestas que EAJ-PNV cree importantes han quedado fuera del presupuesto y los jeltzales tienen intención de seguir defendiéndolas en el plano de mañana. Entre la no aceptadas están, la partida de 42.000 euros para Azkoagain, la cantidad de 20.000 euros aceptada por el equipo de gobierno es insuficiente según los jeltzales, la Ordenanza de Convivencia y el Plan para hacer frente al cambio climático que requieren de partida presupuestaria para agilizar su realización, así como la ampliación de la subvención a la Banda Municipal y la pantalla de Led para anunciar la programación cultural, entre otros.

“Nuestra intención, tanto a la hora de realizar las propuestas como a la hora de negociarlas con el equipo de gobierno, ha sido dar la mejor respuesta posible a las necesidades de la ciudadanía” ha afirmado Ainhoa Galdos, “esa es nuestra labor como representantes del pueblo y tenemos el firme compromiso de seguir trabajando en ese sentido, el compromiso de trabajar con y para las y los oñatiarras” ha concluido la portavoz jeltzale.